




Lanabesak musika-tresna bihurtzen dituzte kirikoketa-jotzaileek.

KIRIKOKETA, SAGARRAK ZANPATZEKO LANA MUSIKA EGINEZ

LANALDIAK SAMURTZE ALDERÁ, MUSIKA JOTZEN ZUTEN ANTZINA SAGARDOGILEEK

Kirikoketa erritmo baten izena da, sagarra zanpatzean sortzen zen erritmo-aren onomatopeiaren irakurketa eta kantatzea. Izan ere, sagarrak txikitze-ko antzina erabiltzen ziren lanabesak musika-tresna gisara egokitzen zituzten eta txalapartaren antzera jo.

Zalantzarik gabe, guztiok ados geundeko lan egitea jokoan edota festan aritzea baino askoz ere gogorragoa eta astunagoa dela erraterakoan. Honex-

gatik, lana samurtzea eta esfortzuaren izerdia gozatzea izan da gizakiok betidanik bilatu izan duguna, eta, ondorioz, lana, joko eta festa aspalditik uztarturik agertu izan zaizkigu.

Hartara, sagardogintzan ere antzeko zerbait gertatu da eta sagarrak txikitze-ko tenorean errepikakortasunari musika atera zioten aspaldi batean: kirikoketa, kirikoketa, koketa, ko-

keta... Hitz-leloa aipatuz, hitz-katea kantatuz, hitz-azkenak errimatuz, guztia egurrezko mailu zanpatzaileak sagastietatik erorazitako fruituen aurka astindu arau.

Herri Musikan aditua den Juan Mari Beltranek "Lan erritmoetatik musikara" izenburupeko bere idazlanean zehazten duen modura, «lan gehienek bere erritmoa eta era berean, neu-

IBARRA SAGARDOTEGIA



OHIZKO EUSKAL SAGARDOTEGIA

300 lagunentzat tokia

Zabalik egun guztietan, bazkariak eta afariak

MENU

- Bakailo Tortilla
- Bakailo Takoak
- Txuleta
- Gazta, Intxaurrak, Membrilua, Ogia eta Sagardoa
- Tortilla de Bacalao
- Tacos de Bacalao
- Chuleta
- Queso, Nueces, Membrillo, Pan y Sidra



BERTAN EGINDAKO SAGARDOA

Caserío Ibarra, B.º Ibarra, s/n - ☎ 94 673 11 00 - e-mail: ibarra@sagardotegi.com - ZORNOTZA

rribatean edo bestean, bere musika izaten dute, erritmoa beharrezkoa izaten baita, bai bakar-kai bai taldeka egiten diren lanean. Izan ere, Juan Mari Beltranek ederki asko argitzen duenez, «erritmoak egiten den lanaren urratsak antolatzen laguntzen du; eta egituratze honen ondorioz, lan hori errazagoa, atseginagoa eta entretenigarriagoa izaten da. Bakarka egiten denean, erritmoak lanaren urrats bakoitzak behar duen denbora neurtzen eta banatzen laguntzen du. Lana taldeka egiten denean, aurreko funtzio horretaz gain, erritmoak talde osoaren koordinaketaren zeregina betetzen du, lan taldearen martxa egokia markatuz eta mantenduz». Izan ere, Juan Mari Beltran musika ikerlariak aipatzen du hamaika ofizio dagoela bere musika edo-

ta erritmo propioekin. «Sega zorroztean edota sega pikatzean, mailuaren hots erritmikoa jarraituz kantatzen zituzten abestiak gogoratzea besterik ez dago. Mailuaren hotsean oinarritutakoa da R. M. Azkuek Nafarroako Oskoz herrian jasotako "Ar-an-kin-tran-kin Trankun-mai-lu-a-ren O-tsa..." kantua esaterako».

Lana bukatutakoan, festa

Arizkungo Jo ala Jo kultur elkarteak lan gaitza egin du kirikoketaren inguruan, eta bada urte pare bat musika molde horren usadioa berreskuratu dutela. Patxi Larralde elkarteak kideak ikertutakoaren arabera, «Baztan ibarreko Arizkungo Pierresenea etxekoek dolare-etxea zuten. Dolare-etxe hartan gizon taldea zortzi egunez, goiti-beheiti, sagardoa presta-

tzeko sagarra jo eta jo zantpatzen aritzen zen. Azkeneko egunean, sagar guztia jota, sagar zukua ateratzeko patsa guztia estutzen zutelarik, eta gainerako lanak akitzen zituztelarik, sagar jotzaileek festa egiten zuten».

Modu berean, Juan Mari Beltranek auzolanean egindako lanak bukatzean, festa ospatzeko ohitura aipatzen du: «Sagardoa egiteak, belarrak biltzeak, etxeari teilatua emateak... ospakizunerako festa ekarri izan ohi zuten, lana festaren bezpera bihurtuz, bukatzean gozatuko dutelakoan, eta horretan pentsatuz, nolabait, lanak berak bere alde gogorra galduz. Sagardoaren zantpatze-ari zegokion festaren musika da kirikoketa».

Horrenbertzez, Patxi Larralde ikertutakoaren arabera, Pierresenean lanean ibilitako gizon haiek plazara agertzen ziren, eta, hantxe, sagarrak zantpatzeko mazoak eskuetan zituztela, kirikoketa jotzen hasten

Josu SANTESTEBAN



“

Arizkungo Jo ala Jo kultur elkarteak lan gaitza egin du kirikoketaren inguruan, eta bada urte pare bat musika molde horren usadioa berreskuratu dutela

ziren, plazako losetan edota egurrezko oholaren kontra kolpeak emanez. «Festa polita egiten omen zuten. Inguruko berrideak plazako zalaparta, kantu eta gainerakoak sumatuta harat hurbiltzen ziren. Pierresenean neskato gisa aritzen zen andrea sagardoa saltzen aritzen omen zen. Ardoa ere saltzen zen. Garai hartan (1920-1930) sagardo basoa sos bat ordaintzen zen, eta ardoarena berriz bi sos. Kontuak ateratzeko pezeta batek borts erreal zituen eta erreal batek, aldi berean hoge bi sos. Sagar-jotzaileek egun guztia lanean arituta lau-borts erreal irabazten zituzten».

Pierresenean ezezik, Arizkungo Ordoki Auzoko Etxebertzean ere dolare-etxea zutela jakin du Patxi Larralde, eta hemen ere kirikoketa jotzen zutela gogoratzen dute herriko zaharrenek: «Zazpi-zortzi egunez lanean ibili ondoren, azken egunean besta handia egiten zuten. Horieta bi gizon Etxebertze larraineko paretara goititzen ziren eta zerbait kantatzen omen zuten. Tiki, taka, tiki, taka... horrelako zerbait. Eta herritar guztiek dastatzen omen zuen zantpatutako sagar haien muztioa».

Daniel MARTIRENA



SARASOLA
SAGARDOGILLEA


Zumalikardi Baserria
ANOETA'N
Tfnoa. 943 65 26 22

Sagardotegia
ASTEASU'N
Tfnoa. 943 69 02 83



ISASTEGI
sagardotegia

Aldaba-Txiki Auzoa, 15 A • TOLOSA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 65 29 64



sidra natural - sagardo jatorrezkoa



PETRITEGI
SAGARDOGILLEA

Telf. 943 45 71 88
ASTIGARRAGA - Gipuzkoa

